

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AGIRI GARBIKETAKO BATZORDEA

5919

IRAGARKIA, espediente judizialak garbitzeari buruzkoa.

Aner Uriarte Codón jaunak, EAeko Auzitegi Nagusiko Garbitze Batzordearen presidentea naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

EAeko Auzitegi Nagusiko Espediente Judizialen Garbitze Batzordeak, 2017ko maiatzaren 25ean egindako bileran, honako espediente hauek garbitzea erabaki du: jatorriko organo judizialek bidalitako zerrendetan eta ofizioetan agertzen diren amaitutzat jotako espedienteak, dagozkion artxiboetako arduradunek adierazi dutenarekin bat; era berean, erreserba bat ezarri da, hots, ez direla suntsituko bi hilabete igaro arte, Ondare Historikoaren zuzendariak balio historiko-dokumentalagatik gorde behar diren espedientei buruz txostena egin arte eta Eusko Legebiltzarrean espediente judizialak garbitzeari buruz aurkeztutako interpelazioak ebatzi arte; hona hemen espedienteen zerrenda:

ARABA/ÁLAVA

VITORIA-GASTEIZ

– Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia Garbitze masiboko espedienteen hondarrak (1990-1992 Proz. Lab.).

– Zigor Arloko Epaitegiak (1, 2 eta lehengo 3 zk.etakoak –egun Lehen Auzialdiko 6. zk.koa dena–): artxiboan 2003-12-31 arte sartutako espedienteak eta, betearazpen-agindua izanez gero, artxibatzea 2012-12-31 arte.

– Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4 zk.etako Epaitegiak: artxiboan 2003-12-31 arte sartutako aurretiazko eginbide eta prozedura laburtuak; halaber, falta-judizioak, premiazko falta-judizioak, falta-judizioen betearazpenak, zehaztugabeak eta habeas corpus-a, artxiboan 2009-12-31 arte sartutakoak, honako hauek izan ezik, Vitoria-Gasteizko ZEOBera eramandako eta behin betiko artxibatuta ez dauden betearazpen-aginduak izan ezik.

– Administrazioarekiko auzien Epaitegiak: artxiboan 2007-12-31 arte sartutako espedienteak, honako hauek izan ezik, Vitoria-Gasteizko ZEOBera eramandako eta behin betiko artxibatuta ez dauden betearazpen-aginduak izan ezik.

– Lan Arloko Epaitegiak: artxiboan 2002-12-31 arte sartutako espedienteak, honako hauek izan ezik, Vitoria-Gasteizko ZEOBera eramandako eta behin betiko artxibatuta ez dauden betearazpen-aginduak izan ezik.

– Lehen Auzialdiko Epaitegiak: artxiboan 2008an sartutako espedienteak, behin betiko artxibatuta ez dauden betearazpen-aginduak izan ezik.

BIZKAIA

BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIA

– 3. Atala. Bizkaiko Probintzia Auzitegia:

• Apelazio zibileko erroiluak: erregistro-data 1991 eta 1998 urteetakoak dituztenak eta artxibatze-data 2000-12-31 baino lehenagokoa dutenak.

- Apelazio penaleko erroiluak: erregistro-data 1991 eta 1998 urteetakoak dituztenak eta artxibatze-data 2000-12-31 baino lehenagokoa dutenak.

- Falten eta prozedura laburtuen apelazio-erroiluak eta sumarioko auzi penalak: 2000-12-31 baino lehen artxibatutakoak.

BARAKALDO

Zigor-arloko prozedurak: lehengo Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegiko aurretiazko eginbideak, falta-judizioak eta prozedura laburtuak, 2000. urteari dagozkionak.

BILBAO

– Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia:

- Aurretiazko eginbideak eta bestelako zigor-arloko auziak: artxiboan hurrengo urteetan sartutakoak: 1995, 1996, 1997, 2002, 2003, 2004 eta 2005.

- Faltak: artxiboan 2002ko abenduaren 31ra arte sartutakoak.

– Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia:

- Aurretiazko eginbideak eta bestelako zigor-arloko auziak: artxiboan hurrengo urteetan sartutakoak: 1997, 1998, 1999, 2000, 2002, 2003, 2006 eta 2007.

- Falta-judizio arruntak, artxiboan hurrengo urteetan sartutakoak: 1997, 1998, 1999; 2000ko 2. sei hilekoa, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2010 eta 2011.

- Berehalako falta-judizioak: artxiboan 2004, 2005, 2006, 2010 eta 2011n sartutakoak.

DURANGO

– Zerbitzu erkide prozesal orokorra:

- Falta-judizioetako betearazpen-aginduak: jatorria 1 zk.ko ZULUPen dutenak, 1998tik 2008ra artekoak.

- Falta-judizioetako betearazpen-aginduak: jatorria 2 zk.ko ZULUPen dutenak, 2000tik 2008ra artekoak, 2009ko bi betearazpen-agindu eta 2010eko bat.

- Falta-judizioetako betearazpen-aginduak: jatorria 3 zk.ko ZULUPen dutenak, 2000tik 2008ra artekoak, 2009ko hiru betearazpen-agindu eta 2010eko bat.

- Falta-judizioetako betearazpen-aginduak: jatorria 4 zk.ko ZULUPen dutenak, 2000tik 2008ra artekoak.

Horiek guztiak amaitutzat jo dituzte aipatutako ZULUPek, Durangoko Zerbitzu Erkide Prozesaleko idazkari zuzendariaren 2017ko apirilaren 12ko komunikazioaren arabera.

- 2 zk.ko ZULUPen zigor-arloko prozedurak, 2001etik 2005era artekoak, amaituta daudenak.

GIPUZKOA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

– Lehen Auzialdiko 1 zk.ko Epaitegia:

Artxiboan 1994tik 2002ra arte sartutako prozedurak.

– Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegia:

Artxiboan 1994tik 2001era arte sartutako prozedurak.

– Lehen Auzialdiko 7 zk.ko Epaitegia:

Artxiboan 2003tik 2004ra arte sartutako prozedurak.

– Lan Arloko 1, 2, 3 eta 4 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2003an eta 2004an sartutako prozedurak.

– Administrazioarekiko auzien 1 eta 2 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2003an eta 2004an sartutako prozedurak.

– Zigor Arloko 1, 2, 3 eta 5 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2003an eta 2004an sartutako prozedurak.

– Instrukzioko 1, 2, 3, 4, eta 5 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2002aren amaieran eta 2003an eta 2004an sartutako prozedurak.

– Adingabeen Epaitegia:

Artxiboan 2003an eta 2004an sartutako prozedurak.

– Lan Arloko 1, 2, 3 eta 4 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegia:

Artxiboan 2011tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Administrazioarekiko auzien 1, 2 eta 3 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Lehen Auzialdiko 1, 2, 4, 6, 7 eta 8 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegia:

Artxiboan 1994tik 2001era arte sartutako prozedurak, bai eta 2009tik 2012ra arte ere.

– Zigor Arloko 1, 2, 3, 4 eta 5 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Instrukzioko 1, 2, 3, 4 eta 5 zk.etako Epaitegiak:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Adingabeen Epaitegia:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

– Merkataritza Arloko Epaitegia:

Artxiboan 2009tik 2012ra arte sartutako prozedurak.

TOLOSA

– Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa:

1, 2 eta 3 zk. etako ZULUP, 1999. eta 2000. urteei dagozkien auziak, zibileko eta zigor-arloko ordenetan behin betiko amaituta daudenak (falta-judizioak eta zigor-arloko betearazpen-aginduak).

Goian adierazitakoa publiko egiten da, uztailaren 18ko 937/2003 Errege Dekretuaren 16. Artikulua betez, interesdunek bi hilabeteko epean prozesura ekarritako agiriak berreskuratu ahal izan ditzaten. Era berean, ohartarazten da ezen, epea interesdunek agiriak itzultzeko eskatu gabe igaroz gero, prozesura ekarritako agiriak berreskuratzeko eskubidean atzera egin dutela ulertuko dela.

Bilbao, 2017ko azaroaren 8a.

EAEko Auzitegi Nagusiko Garbitze Batzordearen Presidentea,
ANER URIARTE CODÓN.